

IL AZALPEN PROBA • <i>Harry Potter - Sekretuen ganbera</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Sprout andereñoa asto-mahai baten atzean zegoen berotegiaren erdian. Hogei bat belarri-estalki, kolore askotakoak zeuden mahai gainean. Harry Ronen eta Hermioneren artean jarri zenean, andereñoak esan zuen:

—Gaur mandragorak aldatuko ditugu ontziz. Ea, nor esango dizkit mandragoraren nolakotasunak?

Inor ez zen harritu lehenengo altxatu zen eskua Hermionerena izan zelako.

—Mandragora oso suspergarri ahaltua da —esan zuen Hermionek, ohi bezala testuliburua irentsi zuen itxuraz—. Antzaldatua edo madarikatua izan den jendea oneratzeko jatorrizko egoerara itzularazteko erabiltzen da.

—Bikain. Hamar puntu Gryffindorrentzat —esan zuen Sprout andereñoak—. Mandragora antidoto gehienentzako osagaia da. Era berean, arriskutsua ere bada. Nork daki zergatik den arriskutsua?

Hermionek, eskua gezia bezala gora altxatzean, ia-ia airean eraman zituen Harryren betaurrekoak.

IL AZALPEN PROBA • <i>Harry Potter - Sekretuen ganbera</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Hedwig ere oraindik haserre zegoen Harryrekin autoz egindako bidaiak tamalgarriagatik, eta Ronen makila magikoak ere gaizki funtzionatzen segitzen zuten, baina ostiral goizean bere markak hautsi zituen Sorginkerietako eskolan Ronen eskuetatik ihes egin eta Flitwick maisu zahartxo bat bete-betean begi artean jo zuenean, jo zuen lekuan garatxo berde handi eta mingarri bat sorraraziz. Beraz, bata zela eta bestea zela, Harry oso pozik zegoen asteburua iritsi zelako. Ronek, Hermionek eta hirurek larunbat goizean Hagrid bisitatzeko asmoa zuten. Harry, ordea, berak nahi baino zenbait ordu lehenago astindu eta esnatu zuen Oliver Woodek, Gryffindorreko quidditch-taldeko kapitainak.

—Zer-ger-ta-tzen-da? —esan zuen Harryk lelotuta.

—Quidditcheko entrenamendua! —erantzun zion Woodek—. Goazen!

Harry leihotik .so egin zuen begiak erdi itxita. Behe-laino mehe bat zegoen arrosa eta urre-koloreko zeruan zintzilika. Orain esna zegoela, ezin zuen ulertu nola lo egin ote zuen txoriek ateratzen zuten txorrotxio-hotsaz.

IL AZALPEN PROBA • <i>Harry Potter - Sekretuen ganbera</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**– obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Zenbait urtez, fundatzaileek elkar hartuta adiskidetasunean lan egin zuten, magiarako gaitasuna zuten gazteak bilatu eta gaztelura ekartzen zituzten hezteko. Baina gero desadostasunak sortu ziren haien artean. Gero eta leize handiagoa sortu zen Slytherinen eta besteen artean. Slytherinek zorrotzagoa izan nahi zuen Hogwartsen onartzen ziren ikasleei buruz. Pentsatzen zuen magiaren jakintza erabateko azti eta sorgin ziren familietan gorde behar zela. Ez zuen atsegin guraso mugleen haurrak ikasle hartzea, ez zirela fidagarriak uste baitzuen. Behin, eztabaida larria sortu zen horretaz Slytherinen eta Gryffindorren artean, eta Slytherinek alde egin zuen eskolatik.

Binns irakaslea berriro isildu zen, eta ezpainak zimurtu zituen, dortoka zahar zimurtsu batek bezala.

—Informazio-iturri historiko fidagarriek horixe esaten digute –esan zuen–, baina egiazko gertaera hauek ilundu egin ditu Sekretuen Ganberari buruzko kondaira bitxiak. Eta istorio horren arabera, Slytherinek ganbera ezkutu bat eraiki zuen gazteluan, beste fundatzaileek horretaz ezertxo ere ez zekitela.

»Kondairaren arabera, Slytherinek zigilatu egin zuen Sekretuen Ganbera, inork ireki ez zezan, haren benetako oinordekoa eskolara iritsi arte. Oinordekoa bakarrik izango zen gai Sekretuen Ganbera ireki eta barruan daukan izugarrikeria askatzeko, eta magia ikastea merezi ez duten guztiengandik eskola garbitzeko.

Denak isilik geratu ziren kontakizuna bukatu zuenean, baina ez zen Binns maisuaren eskoletan ohikoa zen loaren isiltasuna.

IL AZALPEN PROBA • <i>Harry Potter - Sekretuen ganbera</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Harry, bulegoan bakarrik zegoen bitartean, Dumbledoreren hegazia akabatzea besterik ez zitziola falta pentsatzen ari zen une berean, hegaziak su hartu zuen.

Harryk oi*hu* egin izututa eta atzera jo zuen, idazmahairantz. Estu eta larri ingurura begiratu zuen ea nonbait edatzia bete ur zegoen, baina ez zuen aurkitu. Bitartean, hegazia suzko bola bihurtu zen; txilio ozen bat egin zuen eta berehala errauts-metatxo bat baino ez zen.

Bulegoko atea zabaldu zen. Dumbledore sartu zen, oso kopetilun.

—Maisu —hasi zen Harry hitz etenekin—, zure hegaziak... ezin izan dut ezer egin... su hartu du...

Harry zur eta lur utzirik, Dumbledorek irribarre egin zuen.

—Bazen ordua! —esan zuen—. Egunak eman ditu oso itxura txarrarekin. Esan eta esan jardun diot lehenbailehen egiteko.

Eta barre txiki bat egin zuen, Harry hain txundituta ikustean.